

JATORRI FOSILEKO ERREGAIEN KARAKTERIZAZIO ETA LOGISTIKA

IKASKETA-HELBURUAK: 2. gaia. Erregai likidoak

Maite de Blas Martín
Aitziber Iriondo Hernández
Blanca M^a Caballero Iglesias

Bigarren gaiak hurrengo ikasketa-helburuak ditu:

- Jatorri fosileko erregai likidoei, petrolioaren deribatuei, dagozkien espezifikazioak ezagutzea
- Jatorri fosila duten erregai likidoen biltegitratze eta garraio mota desberdinak ezagutaraztea
- Oliobideak diseinatzeko oinarrizko parametroak aztertzea, horien dimentsionaketa egiteko.

Bigarren gaiaren ardatza ohiko erregai likidoak dira, petrolioaren eratorriak, hain zuzen ere. Aurreko gaiaren eskema berdinari jarraituz, eduki teorikoen bidez erregai likidoen propietateak aztertzen dira bai fisikoak (dentsitatea, biskositatea, lurrunkortasuna, inflamazio- eta sutze-puntuak), kimikoak (konposizio elemental) eta baita termikoak ere (berotze-ahalmenaren determinazioa). Erregai bakoitzaren berezko espezifikazioak zehazten dira, hala nola, oktano-indizea gasolinentzat, zetano-indizea gasolioentzat eta izozte-puntua kerosenoentzat. Gainera, erregai hauen garraio mota desberdinak zehazten dira, hala nola, zisternabagoiak, kamioi-zisternak, itsasontziak, eta zehetasun handiagoz, oliobideak eta polibideak, hauek garraiobide seguruenak eta ekonomikoenetakoak baitira. Azken hauekin lotuta, gai honek beraien diseinuarekin, dimentsionaketarekin eta eraikuntzarekin erlazionatutako datu praktikoak barne hartzen ditu. Gai honetan bestelako aspektuak tratatzen dira, hala nola, erregai likidoen biltegitratzea, honekin lotutako araudia eta biltegitratze mota desberdinak (bertikala sabai mota desberdinekin eta horizontala).